

Anton Bruckner Hilarión Eslava



ABRIL
APRIL

16

20:00

BALUARTE

SALA PRINCIPAL/ARETO NAGUSIA

CORO SINFÓNICO FCNAE
FCNAEK KORO SINFONIKOA

ORQUESTA JOVEN DE PAMPLONA
IRUÑEKO GAZTE ORKESTRA

Director/Zuzendaria
Jesús Echeverría

Soprano/Sopranoa
Carolina Luquin

Mezzosoprano/
Mezzosopranoa
Leticia Vergara

Tenor/Tenorea
Josu Cabrero

Bajo/Baxua
Hodei Yáñez

Recuperación del patrimonio cultural navarro y grandes
compositores internacionales

Nafarroako kultura-ondarea berreskuratzea eta Nazioarteko
konpositore handiak

44. sinfonia, Hiletakoa

Drama intimo bat

Sinfonia honi eman zaion goitzena (Hiletakoa) ez zion Haydn-ek berak eman. Ez dago argi jatorria, baina pasadizo batekin lotuta egon litekeela uste da, eta, istorio horrek dionenez, Haydn-ek berak eskatu zuen sinfonia honen adagioa bere hiletan interpretatzeko. Hala ere, ez dago ebidentzia eztaba daezinik istorio hori babesten duenik.

Anekdotaz haratago, mi minor tonalitateak, Haydn-aren sinfonietan oso ohikoa ez denak, eta obraren izaera ilun eta grinatsuak, batez ere lehen eta azken mugimenduan, neurri batean justifikatzen dute izen hori. Ez da hileta-musika zentzu hertsian, malenkonia eta dramatismo sakoneko adierazpena baizik.

Tradizioz tristurari eta introspektzioari lotutako tonalitate hori hautatu izanak izaera ilun eta dramatikoa ematen dio sinfoniari. Orkestrazioa apal samarra da, Haydn-aren estandarrekin alderatuz gero: bi oboe, bi tronpa eta hari-instrumentuak. Konfigurazio horrek obraren giro goxo eta kontzentratua sustatzen du.

Lehen mugimendu dramatikoa: Lehen mugimendua, Allegro con brio, energia nahasiz eta kontraste dinamikoz betea dago. Konposizio labur eta adierazgarriak dira, eta garapena dramatikoa eta sutsua da.

Bigarren mugimendu malenkoniatsua: Minueta. Allegrettoa mi minorrean, trio batekin mi maiorrean, aringarria da eta atsedenaldi bat ematen dio tentsio dramatikoari. Dena dela, malenkoniak hor jarraitzen du.

Hirugarren mugimendu hunkigarria: Adagioa mi maiorrean sinfoniaren ardatza eta bihotza da. Haren melodia malenkoniatsu eta lasaia bake eta etsipen sententzia ematen du. Mugimendu hau da, istorioak dionaren arabera, Haydn-ek bere hiletan interpreta zedin nahi zuena.


Amaiera indartsu eta kartsua: Finale. Prestoak, mi minorrean, berriro dakar lehen mugimenduaren energia asaldaturik, erritmo zorrotza eta izaera sutsua lagun dituela. Amaiera bortitza da, eta nolabaiteko ezinegon sortzen du.

Sinfoniak Sturm und Drang estiloaren ohiko ezaugarriak ditu: emozioen intentsitatea, kontraste dinamikoa latzak, tonalitate minorrean erabilerak eta sentipen kartsuen adierazpena.

Egitura:

Sinfoniak lau mugimenduko egitura klasikoa du, baina berezitasun batekin: mugimendu lasaia hirugarren tokian du, eta ez hasierako allegroaren ondoren, ohikoa zen bezala.

1. Allegro con brio (mi minor)
2. Menuetto. Allegretto (mi minor – trio mi maiorrean)
3. Adagio (mi maior)
4. Finale. Presto (mi minor)



Hilarión Eslava

Maisu nafarra XIX. mendeko Espainiako musikaren panoraman

Hilarión Eslava (1807-1878) funtsezko figura izan zen XIX. mendeko musika espainiarrean. Burlatan jaio zen, Nafarroan, eta konpositore, musikologo eta pedagogo gisa nabarmendu zen. Bere lana funtsezkoa izan zen Espainian musika erlijiosoa biziberritzeko eta hurrengo belaunaldiko musikariak trebatzeko. Eslavak kargu garrantzitsuak izan zituen, hala nola errege kaperako maisua eta Madrilgo Kontserbatorioko zuzendaria, eta garrantzi handiko ondarea utzi zuen bai bere konposizio-lanetan, bai irakaskuntzan.

Operak, zarzuelak eta musika instrumentala konposatu zituen arren, bere erlijio-ekoizpenak du ospe gehien. Bertan, Espainiako tradizio polifonikoarekin lotura sakona ikusten da, erromantizismo europarraren eraginekin batera. Eslavaren *Te Deum laudamus* (Jaungoikoa, zu zaitugu laudatzen) estilo horren adibide nabarmena da.

EL TE DEUM LAUDAMUS

Sustrai historikoak dituen gorespen-kantua

Te Deum laudamus (Jaungoikoa, zu zaitugu laudatzen) antzinako ereserki kristau bat da, eskerrak emateko. Haren egiletzat hartu ohi dira San Anbrosio eta San Agustin. Testua inspirazio-iturri izan da makina bat musikagilerentzat historian zehar, eta Hilarión Eslava ez da salbuespena izan. Haren bertsioa erlijio-musika espainiarraren tradizioan kokatzen da, solemnitaterik gabeko eta emozio erlijiosoa sakona uztartzen dituen musika-adierazpena xede duela.

Musikaren eta adierazmenaren ezaugarriak

Eslavak polifonia klasiko espainiarra sakon ezagutzen du; kontrapuntua, imitazioa eta beste baliabide batzuk erabiltzen ditu, eta horrek guztiak gogora ekartzen dizkigu Tomás Luis de Victoria eta Francisco Guerrero, besteak beste. Erromantizismoko zenbait elementu ere hartzen ditu Eslavak, hala nola adierazkortasun melodiko handia eta harmoniaren erabilera oparoa.

Eslavaren *Te Deum* laudamus bost ahotseko abesbatzak eta orkestrak interpretatzeko idatzita dago. Indar horien baturak doinu dotoreak sortzen ditu, ñabarduratan joriak. Eslavak arreta berezia jartzen du latinezko testuaren deklamazioan, musikaren eta hitzen esanahiaren artean lotura egon dadin.

Obran zehar, askotariko egiturak erabiltzen ditu Eslavak, bai pasarte homofonikoak (ahots guztiak erritmo berean abesten), bai atal polifoniko konplexuagoak ere.

Eslavaren *Te Deum* laudamus itzal handiko obra da egilearen ekoizpenen barruan, baita XIX. mendeko erlijio-musika espainiarraren ikuspegi osoan ere. Tradizio polifoniko espainiarra biziberritzeko ahalegina adierazten du, Erromantizismoko elementu batzuk hartuta, eta aldi berean solemnea eta hunkigarria den musika sortzea du helburu. Tradizio polifoniko espainiarraren sendotasuna eta Erromantizismoko adierazkortasuna uztartzen dituen obra da. Entzuten dugunean, Eslavak musikagile gisa duen maisutasunaz gozatzen dugu, eta erlijio-musika espainiarrari egin dion ekarpen handiaz ohartzen gara.

Eslavak koru eta orkestrarako obra korapilatsu hau berariaz konposatu zuen Isabel Borboikoa (1851-1931), Asturiasko printzesa, jaio zela ospatzeko. Ondorengo urteetan errege-familiako kide oso kuttuna izan zen Isabel Borboikoa, bereziki Madrildarren artean, eta han "La Chata" (sudurmotza) esaten zioten herritarrek, maitagarria eta atsegina zela iritzita.

Piezaren izenburua duen orrian ageri den eskaintzak honela dio: "Asturiasko printzesa txit barearen jaiotzan, Errege Kaperako maisuak, Hilarión Eslava".

Te Deum hori Eslavaren obra ospetsuenetako bat da. Musikagilearen biografian Leocadio Hernández Ascunce bereziki aipatu zuen konposizio hori, eta hark nabarmendu zuenez, urte askotan Eslavaren *Te Deum* "berebiziko emozioz entzun zen gorteko ospakizun solemne guztietan, eta Espainiako katedral eta eliza nagusietan".



Anton Bruckner

Lurraren eta Jainkoaren arteko maisua

Anton Bruckner (1824-1896) austriar musikagilea izan zen, erabat erlijiosoa, eta haraindikoaren bilaketa biziak bere bizitza eta obra markatu zituen. Ansfeldeneko jaioa, Austria Garaian, familia apal batean, Brucknerrek txikitatik erakutsi zuen talentu musikal handia. Hasierako organo-jotzaile prestakuntzak eragin sakona izan zuen haren konposizio-estiloan: harmonia aberatsa, orkestrazio bikaina eta berebiziko arkitektura-sena.

Bruckner batez ere sinfoniengatik ezaguna den arren, ekoizpen koralak leku nabarmena du haren katalogoan. Te Deum, 1881-1884 aldian konposatua eta geroago berrikusia, Brucknerren obra koral garrantzitsu eta adierazgarrienetako bat da.

EL TE DEUM

Fedez eta esker onez egindako ereserkia

Te Deum (izenburu osoa Te Deum laudamus, Jaungoikoa, zu zaitugu laudatzen) antzinako ereserki kristaua da, eskerrak emateko. Testu horrek Brucknerren arreta bizia erakarri zuen, eta aukera eman zion fede sakona eta Jaungoikoari buruzko ikuspegia musikaren bidez azaltzeko.

JATORRIZKO TESTUA LATINEZ

Te Deum laudamus;
te Dominum confitemur.
Te aeternum Patrem,
omnis terra veneratur.

Tibi omnes angeli,
tibi caeli et universae potestates:
tibi cherubim et seraphim,
incessabili voce proclamant:

Sanctus, Sanctus, Sanctus
Dominus Deus Sabaoth.
Pleni sunt caeli et terra
maiestatis gloriae tuae.

Te gloriosus Apostolorum chorus,
te prophetarum laudabilis numerus,
te martyrum candidatus laudat exercitus.

Te per orbem terrarum
sancta confitetur Ecclesia,
Patrem immensae maiestatis;
venerandum tuum verum et unicum Filium
Sanctum quoque Paraclitum Spiritum.

Tu rex gloriae, Christe.
Tu Patris sempiternus es Filius.
Tu, ad liberandum suscepturus hominem,
non horruisti Virginis uterum.

Tu, devicto mortis aculeo,
aperuisti credentibus regna caelorum.
Tu ad dexteram Dei sedes,
in gloria Patris.

Iudex crederis esse venturus.

Te ergo quaesumus, tuis famulis subveni,
quos pretioso sanguine redemisti.
Aeterna fac
cum sanctis tuis in gloria numerari.

Salvum fac populum tuum, Domine, et benedic
hereditati tuae.

Et rege eos,
et extolle illos usque in aeternum.

Per singulos dies benedicimus te;
et laudamus nomen tuum in saeculum,
et in saeculum saeculi.

Dignare, Domine, die isto
sine peccato nos custodire.
Miserere nostri, Domine,
miserere nostri.

Fiat misericordia tua, Domine, super nos,
quem ad modum speravimus in te.
In te, Domine, speravi:
non confundar in aeternum.

TESTUA EUSKARAZ

Ospe zuri, o Jainkoa, aintza zuri Jauna.
Zuri lurrak, Aita Goikoa, aintza gorena.

Zuri, daude ahuspez Goiko indarrak, Aingeruak,
zerugoian beti emanez gorets kantuak:

Saindu, saindu, saindua, diren guzien Jainko Jauna.
Zeru-lurra beterik dauzka zure distirak.

Zuri goreska dabilta apostoluen koru loriatsua,
profeten jendetza miresgarria eta martirien
armada noblea.

Zutaz mintzo da, goraki zutaz, mundu guzian Eliza:
Zeruko Aita, guzien Aita, ospez neuririk gabea;
Zu, Jainkoaren benetako Seme bakarra eta
goresgarria;
Zu Espiritu Santua, Kotsolatzailea.

Zu, Jesu Kristo, denen argia, Errege aintzaz betea,
zu zarelarik Jainko Aitaren betiereko Semea,
onartu duzu, gu salbatzeko, Ama Birjinan sortzea.

Heriotza garaitu eta zerua duzu ireki.

Zu, Jainko Aitaren eskuin aldean jarrita.

Sinesten dugu berriz etorriko zarela gu epaitzera.

Zuri, bada, otoitz egiten dizugu, arren, zeure
zerbitzariak, zeure Odolaz erosiak, fabora ditzazun.
Eta saritu ditzazun zure sailduekin batera onartzu
Zeruan betiko.

Salba, Jauna, zure herria, bedeinka zure ondarea.

Izan zaitetz haien artzain eta gidari beti.

Egunero bedeinkatzen zaitugu, eta zure izena
goresten dugu betierean.

Arren, Jauna, libra gaitzazu bekatutik. Erruki
zakizkigu, Jauna, erruki guri.

Erruki, Jauna, zure neurrigabeko gupidaz.
Zugan, Jauna, nire itxaropena, ez didazu huts
egingo betikotasun guztian.

Musikaren eta adierazmenaren ezaugarriak

Brucknerren Te Deum obra itzela da eta behar handiak ditu: ahots ugariz osatutako abesbatza, abeslari solistak (sopranoa, mezzosopranoa, tenorra eta baxua) eta orkestra handia, ad libitum organoa eta guzti. Indar horien baturak doinu bikain eta dotoreak sortzen ditu, eta Jaungoikoaren handitasuna gogora ekartzen du.

Brucknerrek tarte dinamiko zabala erabiltzen du: pasarte ezti eta kontenplaziozkoetatik intentsitate handiko soinu-eztandetaraino. Kontraste horrek obraren adierazkortasuna areagotzen du, eta emozioen sorta handi bat helarazten du: apaltasuna, erregua, alaitasuna, gorespena eta abar.

Te Deum konplexua bada ere, egitura argia du, ongi zehaztua. Bost ataletan banatuta dago, eta atal horiek bat datoz testu liturgikoaren zatiekin:

1. Te Deum laudamus (Jaungoikoa, zu zaitugu laudatzen)
2. Te ergo quaesumus (Zuri, bada, otoitz egiten dizugu, arren)
3. Aeterna fac (Saritue ditzazun zure sainduekin batera onartuz Zeruan betiko)
4. Salvum fac populum tuum (Salba, Jauna, zure herria)
5. In te, Domine, speravi (Zugan, Jauna, nire itxaropena)

Kantu gregorianoaren eragina nabari da melodia batzuetan eta obraren izaera orokorrean, eta horrek solemnitatezko eta antzinatasunezko giroa sortzen du.

Te Deum exigentzia handiko obra da, bai abeslariarentzat, bai instrumentistarentzat. Teknika oso ongi menderatu behar da eta Brucknerren estiloa oso ongi ulertu, haren mezua behar bezala helarazteko.

Estreinaldia eta eskaintza

Vienan estreinatu zen Te Deum 1886ko urtarilaren 10ean, eta arrakasta handia izan zuen ikusleen artean. Brucknerrek erreberentzia handiz eskaini zion obra Austriako enperadore eta Hungariako errege apostoliko Frantzisko Josef I.ari. Esan ohi da Brucknerrek obra hau konposatu zuela haren salbazioa eskatzeko Jaungoikoari, eta Vienan hainbeste estutasunetatik ongi atera zelako eskerrak emateko.

*Y para que conste y fiera, que
al interesado converge, doy el pre-
sente certificado que firmo en
Madrid a 4 de Marzo de 1865.
Hilario E. Llavall*

Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Koro Sinfonikoa

Coro Sinfónico de la Federación de Coros de Navarra

BERRIKUNTZA ETA ERREALITEA: MUSIKA KORALA BALIOESTEA

Nafarroako Abesbatzen Federazioak erakutsi du, haren historian zehar, musika korala maitale leial, babesle eta sustatzaile dela. Sortu zenetik, gogotik eta nekerik gabe lan egin du Nafarroan eta beste toki batzuetan musika korala hedatzeko eta sustatzeko. Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Koro Sinfonikoa 2008ko abenduan sortu zen, asmo handiko proiektu gisa, gure komunitateko musika korala ez profesionalaren adierazle izan zedin, bai Nafarroan, bai beste toki batzuetan. Harrezkero, kontzertu askotan parte hartu du Foru Komunitateko geografian zehar eta hemendik kanpo, eta goraipamenezko kritikak jaso ditu.

Abesbatza horrek zuzendari ospetsuekin lan egin du: Alina Orraca (Kuba), Electo Silva (Kuba), Eduardo Correa (Argentina), Javier Dameson (Argentina), Miroslav Kosler (Txekia), Aurelio Sagaseta (Espainia), Basilio Astulez (Espainia), Cesar Carrillo (Venezuela), eta Nafarroako Abesbatzen Federazioak gonbidatutako beste hainbat koro-zuzendari.

LORPEN GAILENAK

Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Koro Sinfonikoaren lorpen nagusien artean dago Errusian (Mosku eta San Petersburgo) eta Estonian (Tallinn) emandako kontzertuen bira arrakastatsua, abesbatzaren sortzaile eta lehenengo zuzendari izan zen Carlos Gorricho Oterminen zuzendaritzapean. Halaber, Aragoi, Kantabrian, Errioxan eta Frantzia ere egin dituzte emanaldiak. Urte horietan guztietan maisu hauek zuzendu dute koroa: Ion Irazoki Zubieta, José Antonio Huarte, Máximo Olóriz, Bruno Jiménez eta Jordi Freixa. 2023-2024 denboraldian eta 2025ean Jesús Echeverría da orkestra-zuzendaria eta koroaren prestatzailea.

Abesbatza federatuak kideek osatzen dute Koro Sinfonikoa, eta horrek adierazten du Nafarroa osoan dagoen talentu korala eta aniztasuna. Gaurko garaia egokitu eta birsortu den adierazpen artistikoa da musika korala, eta berrikuntza irudikatzen du, baita Nafarroako bizitza kulturalaren errealitatea ere. Koruak, musika korala edonora eramateaz gain, etorkizun oparora iragartzen digu: musika korala funtsezko oinarria izaten jarraituko du nafar komunitatean.

MUSIKA KORALA NAFARROAN: ETORKIZUNA

Musika korala tradizioa baino zerbait gehiago da; errealitate bizia da, berrikuntza kulturean aurrera egiteko baliabidea. Koro Sinfonikoaren bitartez, Nafarroak erakutsi du abangoardian ibil daitekeela, garaietara egokituz eta aldatuz, eta aldi berean historia eta talentu musikala gailenak dituen komunitatea izaten jarraitzen du. Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Koro Sinfonikoak urteak daramatza inork interpretatzen ez dituen Eslavaren obrek daukaten balioa erakusten; izan ere, kultura-ondare ordainezina osatzen dute.



Jesús Echeverría

Orkestra-zuzendaritza ikasi zuen Vienako Kontserbatorioan eta Londresko Royal Academy of Music-en.

Londresen The European Sinfonia sortu zuen. Compostela 93 programazioa inauguratu zuen Beethovenen 9. sinfoniarekin, eta The London Philharmonic Choir, Obratzsova eta Ricciareli zuzendu zituen. Zuzendari aritu da Bartelonako Palaun, Valentziako Palaun, Bilboko Arriaga Antzokian eta Euskalduna Jauregian, Donostiako Kursaalaren eta Victoria Eugeniaren, Kordobako Teatro Principal antzokian, Iruñeko Baluartean, Kantabriako Palacio de Festivales jauregian, Santiago de Compostelako Auditorioan, RiojaForumen eta Zaragozako Auditorioan, besteak beste.

1988az geroztik Nafarroako Orkestra eta Euskadiko Orkestra zuzendu ditu. Halaber, Letoniako Orkestra Filarmonikoa, Lublingo Antzokiko Orkestra eta Musikeneko Orkestra Sinfonikoa zuzendu ditu.

Bira bat egin du Japonian, eta beste bat Polonian. Zarzuelaren Antologia bat ere zuzendu du Lublinen, Polonian.

Opera, zarzuela eta musika sinfoniko-korala zuzendu eta grabatu ditu. Nabarmentzekoak dira Perla arrantzaileak eta Haremetik bahitua. Hilarión Eslavaren Miserere Handia eta Requiem Meza grabatu ditu DVDn. Usandizagaren Enarak obraren opera-bertsioa zuzendu du.

Konposizio-irakasle izan ditu González Acilu,




Escudero, Marco, Darias, Halffter eta Sotelo. CD batean argitaratu du MUSIKA GARAIKIDEA FUNDAZIOAK Jesús Echeverriaren Dos Bocetos (Bi zirriborro) obra. INJUVE konposizio-saria jaso zuen 1998an eta 1999an. PABLO SOROZÁBAL SARIA jaso zuen 2. Hari Laukotea obrarekin. XVIII. JOAQUÍN TURINA SARIA lortu zuen Requiem Sine Verbis obrarekin.

MUSIKA GARAIKIDEAREN HEDAPENERAKO ZENTROAREN enkargu bat jaso zuen. Diálogos (Elkarriketak) obra Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan aurkeztu zuen.

XV. CIUDAD D'ALCOI KONPOSIZIO-SARIA lortu zuen 2000. urtean. Musika Hamabostaldian eta Musikaste Jaialdian obrak estreinatu zituen. Egileen fundazioaren enkargu bat jaso zuen.

2019an estreinatu zuen Concierto para percusión y orquesta (Perkusio eta orkestrarako kontzertua), Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren enkarguz egina. D'Artagnan opera ere estreinatu zuen, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa zuzentzen. Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean dihardu urtero, eliz-kontzertu sinfoniko-koraletan.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari elkartua izan da (2015-2018), eta Errioxako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titularra.



Iruñeko Gazte Orkestra Joven Orquesta de Pamplona

Iruñeko Gazte Orkestra gara, Nafarroako eta inguruko interprete gaztez osatutako orkestra autogestionatua. Sortzaileak, Mirari Etxeberrriak, 2017an abiatu zuen proiektua, 20 urte baino ez zituela, orkestra-zuzendaritzan hasteko xedez.

Orkestra hazi egin da, eta 65 kideetik gora izatera iritsi da, gaur egun. Partaideak goi-mailako musika-ikasleak gara askotariko espezialitatetan

(interpretazioa, konposizioa, musikologia eta pedagogia). Musikari gazteak lan-mundura hurbiltzeko asmoa duen proiektua da; izan ere, ikasleok gustukoan ditugun jarduerak profesionaletako bat orkestra handi bateko kide izatea da.



Carolina Luquin

SOPRANOA

Leaper zuzendari zuela eta Musikeneke Orkestra Sinfonikoarekin; eta J. S. Bach-en Gabonetako Oratorioa, Perry So zuzendari zuela eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin, Baluarte Batzar Jauregi eta Nafarroako Auditoriumean 2023an. Hiru sari lortu ditu opus lirica lehiaketaren bigarren edizioan, eta semifinalista izan da Espainiako Gazte Musikarien lehiaketako 106. edizioan. Beka bat eman zioten Leipzigen opera studio batean parte hartzeko 2023ko urrian.

Debuta egin zuen Manuel García kompositorearen Don Chisciotte operan Lucindaren rola egiten 2024ko irailean, HildesheimTheater für Niedersachsen antzokian (Hildesheim, Alemania), eta G. Donizettiren L' elisir d' amore operan Gianettaren rola egiten 2024ko otsailean, Donostiako Kursaal auditorioan.



Leticia Vergara

MEZZOSOPRANOA

Ahotsaren teknika eta erreperitorioa landu ditu Carmen Arbizu, Maite Arruabarrena eta Maciej Pikulski irakasleekin. Eskola magistralak jaso ditu profesional hauengandik: Bernarda Fink, Justina Gringyte, Ana Luisa Chova eta Rubén Fernández Aguirre.

Hainbat operatako rolak interpretatu ditu: Dido (Purcell), Agrippina (Händel), Orlofsky printzea (Strauss), Txirola magikoa obrako hirugarren dama (Mozart) eta Emilia (Verdi), besteak beste. Mezzosoprano eta orkestrarendako konposatutako erreperitorio nagusiko hainbat obra interpretatu ditu. Haien artean nabarmentzekoak dira Rückert-Lieder (Mahler), Bost abesti beltz (Montsalvatge), Chanson perpétuelle (Chausson), Petite Messe Solennelle (Rossini), Requiem (Mozart), Magnificat (Bach) eta Messiah, Te Deum eta Dixit Dominus (Händel). Solista gisa emanaldiak egin ditu Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren denboraldian, Orchestre du Pays Basque orkestrarekin, eta Bilboko Musika-Música jaialdian, besteak beste.

Agertokia partekatu zuen Ricardo Requejorekin; biak lagunak ziren eta errezitaldi hunkigarri bat eman zuten Irunen 2016an. Maciej Pikulski piano-jotzailearekin batera errezitaldi bat eman zuen Donostiako Musika Hamabostaldia 79. edizioan. Irungo Luis Mariano Nazioarteko Kantu Lehiaketan finalista izan zen, eta publikoaren saria lortu zuen. Halaber, finalista izan zen Logroñoeko Nazioarteko Kantu Lehiaketan.

Irungo Ametsa Txiki haur-abetesbatzako zuzendaria da, Berako musika-eskolan irakasle ari da, eta ahots-teknikako eskolak ematen dizkie hainbat ahots-talderi. Donostiako Orfeoiko haur- eta gazte-abetesbatzen zuzendaria izan da.



Josu Cabrero

TENORRA

Puritani (OLBE), Hamlet (Campoamor Antzokia, Oviedo), La Bohème (Baluarte, Iruña), Rigoletto (OLBE) eta Il Trittico (OLBE), besteak beste.

Tenor solista gisa ere eman ditu hainbat kontzertu: Monteverdiren Magnificat (Deba, Gipuzkoa), Buxtehunderen Membra Jesu Nostri (Lekeito, Bizkaia), Händelen Messiah (Beasain eta Donostia, Gipuzkoa; Bilbo eta Barakaldo, Bizkaia), Schuberten Winterreise (Palacio de Festivales jauregia, Santander; Vital Fundazioa Kulturunea, Gasteiz), besteak beste. Halaber, errezitaldi asko eman ditu bere ibilbidean.

Leioan (Bizkaia) jaio zen. Musika Hezkuntzako Irakasle titulua atera zuen, eta gero Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua, biak Burgosko Unibertsitatean. Halaber, titulu hauek dauzka: Kantu Gradu Profesionala, Burgosko Rafael Frühbeck Kontserbatorioak emana; Goi-mailako Kantu Gradua, Donostiako Musikenek emana; eta Piano Gradu Profesionala, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioak emana.

Kantu-klaseak jaso ditu profesional gailenen eskutik: Ana Luisa Chova, David Menéndez, Eduardo López Banzo, Lawrence Brownlee, Maciej Pikulski, Ana M^a Sánchez, Carlos Mena, Giancarlo Monsalve eta Enzo Spatola, besteak beste.

Halaber, Javier Camarenak emandako masterclass batean parte hartu du.

Askotariko ekitalditan abestu du, hala nola Burgosko Forum Evolución auditorioaren inaugurazio-ekitaldian, Sofia erregina bertan zela. Gainera, hainbat opera antzestu ditu: Figaroren ezteiak (Estamentuen Antzokia, Praga), Madame Butterfly (Kursaal, Donostia), Txirula magikoa (Kursaal, Donostia), Dido eta Aeneas (Arriaga Antzokia, Bilbo), Hoffmannen ipuinak (OLBE, Bilbo), Bost Axola Bemola (OLBE Txiki), I



Hodei Yáñez

BAXUA

Hodei Yáñez Ibarra jaio zen 2003an. Biolin-ikasketak egin zituen Loatzko musika-eskolan, eta gero Gradu Profesionala burutu zuen Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan.

Gaur egun Musikeneko kantu-espezialitateko bigarren ikasturtea egiten ari da, eta Maite Arruabarrena, Itziar Barredo eta Maciej Pikulski irakasle ditu, besteak beste. Solista gisa aritu da hainbat abesbatzatan: Conductus Ensemble, Donostiako Orfeoa, Andra Mari Abesbatza, Durangoko Orfeoa, Arabako Abesbatza Sinfonikoa eta Suhar gizonen abesbatza.

Elkarte hauen ekoizpenetan ere parte hartu du: Sasibil, Donostia Musika eta Luis Mariano Elkarte. Errepertorioan oratorioa du nagusi, eta Fauréren Requiem gailentzen da, batez ere, baina beste obra batzuk ere interpretatu ditu solista gisa, hala nola Händelen Messiah eta el Buxtehunderen Membra Jesu Nostri. Pixakanaka, operara hurbiltzen ari da.



Federación de Coros de
Navarra Nafarroako
Abesbatzen Elkartea

con voz propia gogo bete kantuz

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



música sacra
FESTIVAL MUSICAL
MUSIKA JAIALDIA



Carlos III
El Noble